

JUSTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK 2016
1. ARLOA: ENPRESA-PROIEKTU BERRITZAILEAK GARATZEA

a) Bideragarritasun- eta merkatu-azterlanak

Hauek sartzen dira: bideragarritasun-azterlanak, bazkideak bilatzea eta merkatu-azterketak.

b) Txosten eta azterketa tekniko zehatzak

Hauek sartzen dira: analisiak, entseguak, homologazioak, ziurtagiriak, eta proiektua garatzeko beharrezkoak diren proiektu teknikoak.

c) Jabetza intelektual eta industrialaren babestea, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak

Hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

- Aurrekariaren bilaketari eta babes teknikoaren egoeraren analisiari buruzko txostenak.
- Jabetza intelektual eta industrialaren lortzeko gastuak eta zerbitzu-sariak, modalitate hauetan: teknikaren egoerari buruzko txostenak, asmatze-patentea (estatukoa, Europakoa edo nazioartekoa PCT), erabilgarritasun-eredua, diseinu industrialaren marka nazionala eta Batasuneko, zeinu bereizgarriak eta egile-eskubideak.

Lehen inskripzioaren gastuak bakarrik ordainduko dira eta kanpoan geratzen dira berritzeek, bosturtekoek eta antzekoek eragindako gastuak.

d) Prototipoak

Merkaturatu ezin diren prototipoak definitzeko eta garatzeko gastuak sartzen dira, prototipoak ezin direnean amaierako produktutzat jo.

Hau da diruz lagunduko den gastua:

- Prototipoa zuzenean talde sustatzaileak egiten badu, prototipoa egiteko behar diren materialen gastuetarako laguntza emango da.
- Moldeak, aurremoldeak, tresnak, trokelak eta halakoak behar dituzten prototipoei dagokienez, gutxienezko pieza-kopurua ekoizteko balio duen eta gero erabilezina izango den aurremolde bat baino ez da ordainduko.

Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso gastu hauek:

- Produktu berriak garatzeko proiektuak, baldin eta proiektua amaitu ondoren enpresaren produktuak jasotzen dituen paper-zorroan sartuta ez badaude.
- Enpresan dagoeneko badauden produktuak berritzeko, hobetzeko edo aldatzeko (funtzionaltasunak, estetika, lege araudia, etab.) proiektuak
- Lehen prototipoaren aldaketak edo hobekuntzak

e) Bidaiek egin eta azoketan parte hartzea

Kontzeptu hauek sartzen dira:



- Azoketan parte hartzea: izena emateko gastuak, erakustokien alokairuarenak, jarduera berria aurkezteko gelen alokairuarenak eta prototipoak eta materialak garraiatzeko behar diren ibilgailuen alokairuarenak.
- Joan-etorriak, garraio publikoan eta hegazkinean. Beren-beregi kanpo uzten dira taxien gastuak eta norberaren ibilgailuarenak.
- Garraio publikoa erabiliz gero, bidaia-txartelak aurkeztu ahal izango dira faktura gisa.
- Ostatu hartzea (ostatua eta gosaria). Beren-beregi kanpo uzten dira hotelean egindako bazkariak, telefono gastuak eta gastu estrak.

Proiektuaren taldeko pertsona egindako gastuetarako diru-laguntza emango da, onuraduna pertsona fisikoa zein juridikoa baldin bada.

f) Proiektua garatzeko kanpoko aholkularitza.

Proiektuaren garapena aztertzeke fasean sortutako aholkularitza-gastuak sartzen dira.

EPEAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuak burutzeko epea: 2015/01/01etik 2017/09/30era arte. Gastuek 2017/12/31 baino lehen ordainduta egon behar dute.

Burututako gastuen **fakturak aurkezteko azken eguna:** 2017/10/31.

Egindako gastuen **ordainketa-agiriak aurkezteko azken eguna:** 2018/01/31.

DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Enpresak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Fakturen kopiak eta dagozkien ordainagiriak, eta, hala badagokio, egindako lanaren kopia.
- Gastua 18.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe) eta eskabidea aurkezten denean egin gabe badago, egin beharreko lanen eskaintzei buruzko dokumentazioa.
- Proiektua garatzen ari den bitartean, tarteko justifikazioari dagokion jarduketan memoria (tarteko justifikazio-memoria).
- Proiektua amaitzen denean, azken justifikazioari dagokion jarduketan memoria (azken justifikazio-memoria).

Adjudikatutako diru-laguntza proiektuaren gauzatze-mailaren arabera ordainduko da eta 3 ordainketa egingo dira, gehienez. Lehen ordainketa egiteko diru-laguntzaren %20 justifikatua egon beharko da, bigarren ordainketa egiteko diru-laguntzaren %40 eta hirugarren ordainketarako diru-laguntzaren gainerakoa.

Egindako lanak aurkeztu baino lehen, gastuen zenbateko osoaren % 25 ordaindu ahal izango da gehienez. Horretarako, faktura eta ordainagiria aurkeztu beharko dira.

Diru-laguntza jaso dezaken gastua izango da erakunde hornitzaile independenteei azpikontratutako lanaren zenbatekoa. Enpresa sustatzaileko langileek edo bazkideek egindako lanak ez dira diruz lagunduko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.7.d) artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.